



EBAZPENA, 2023ko URRIAREN 20koa, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ORDEZKAPENAK EGITEKO 2023ko URRIAREN 6an IREKI ZIREN APARTEKO ZERRENDETAN ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA ARGITARA EMATEN DUENA.

Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko ebazpenaren bidez, ordezkogaien aparteko zerrendak ireki ziren Bigarren Hezkuntzan, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna salbuetsiz. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduaren 8.3.3., 14. eta ondorego artikuluetan eta horren aldaketetan ezarritako baldintzen arabera egin zen.

Deialdi horretan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Argitara ematea Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urriaren 6ko Ebazpenaren bidez irekitako Bigarren Hezkuntzako ordezkapen-zerrendetan onartutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrendak, bai eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrendak ere, baztertzeko arrazoiak adierazita.

Bigarrena.- Ordezkapenetako zerrenda horiek osatzen dituzten ordezkogaiak aipatutako aginduan ezarritako irizpideen arabera ordenatzen dira eta, alfabetikoki, izen-deituren arabera, 2023-2024ko ikasturtean ordezkapenak egiteko ordezkogaiak kudeatzeko prozesuan alfabeto-ordena zehaztuko duen letra aukeratzeko zozketaren emaitzaren arabera. Zozketa horren emaitza Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2022ko urriaren 21eko ebazpenaren bidez eman zen argitara: J letra.

Hirugarrena.- Onartutako en eta kanpoan utzitako en behin-behineko zerrendak kontsultatu ahal izango dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> orrian / Irakaslegunea / "Administrazio-izapideak" eta "Zerrendak irekitzea" / "Zerrenda-Irekitze Berriak" – "Eskaera-aldi itxia dutenak (Prozesuaren Segimendua)" estekan klik eginez.
- www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/ orrian / Lan-Arloak / Langileak / Hornikuntza-Irakasleak / Ordezkapenentarako izangaiak / Aparteko zerrendak irekitzea / Zerrendak irekitzea / 2023-10-06ko deialdia, eta <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> estekan klik eginez.

Bi kasuetako edozeinetan, alde z aurretik erabiltzailearen eta pasa-hitzaren klabeak sartu beharko dira. Klabe horiek izan edo gogoratu ezean, <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> orrian lortu ahal izango dira, "Pasa-hitza eskuratu (edo berreskuratu)" estekaren bidez.

Ondoren, eta "Kontsulta pertsonalizatua" estekan klik eginez, egindako eskaerari buruzko banakako informazioa lortu ahal izango da.

Zerrendetatik at geratu diren pertsonen kasuan, "kontsulta pertsonalizatuen" atal horretan bertan ikusi ahal izango da/dira kanpoan geratu izanaren arrazoi en xehetasun konkretua.



Laugarrena.- Behin-behineko zerrenda horren aurka, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte 2023ko urriaren 23tik 27ra bitartean, biak barne, Hezigunea plataformaren bidez, Tramitagune Hezkuntza atalean sartuta.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 20